

IBAI PASALEKUA

Distantzia: 25 km

Lekua: Santakara,
Zarrakastelu, Mélida eta
Murillo el Fruto

Ibilbide-zidor zoraigarri hau Aragoi ibaiak egindako bidea jarraitzen du, ibaitik ahalik eta hurbilen.

Oinez edo bizikletaz ibiliz gero, landaretza ikus daiteke eta animalia espezie ugari ikus daitezke, baita bisoia ere, galtzeko arriskuan dauden animalia.



TAMARIZ LANDAREA



Distantzia: 5 km. joan-etorria

Hasiera: Gaztelu kalea

Oso ibilaldi atsegina, nahiko laua eta ibiltzeko edo korrika egiteko aproposa.

Bidean "Las Balsas" ere aurkituko dugu, ur lasaiak, non geldialdi bat egin dezakegun naturaren soinuez gozatzeko.

BARATZEAK

Nafarroako barazkien ospea, denok ezağutzen dugu eta Santakara ezin zen gutxiago izan. la familia guztiek baratze txiki bat dute, eta bertan beren barazkiak landatzen dituzte, bai negukoak (aza, zerba, borraja...), bai udakoak (tomateak, pepinoak, kalabazinak...).

Jakina, Nafarroako zainuriak ere ahaztu gabe.



TOPONIMIA

Erromatarrek iritsi aurretik, Santakarako lurraldean baskoiak bizi ziren, eta, zehazkiago, Ager Vasconumekoak zirenak.

Zaila da zein hizkuntza hitz egiten zuten zehaztea, baina badirudi gaur egungo euskararen forma zaharra zela. Erromatarren okupazioak konkista kultural bati ekin zion, bizitzeko moduari, legeei, eta horrek latina hizkuntza ofizial gisa inposatzea ere ekarri zuen. Lekuen izenak (toponimia) hitz egin den eta desagertu den hizkuntzaren lekuko zuzenak dira.

Santakarako toponimia aztertu ondoren, esan dezakegu izen batzuek euskal jatorria dutela, baina ezin dugu jakin zein neurritan eta noiz arte erabili zen euskara lurralde horretan.



PASALEKUA ETA CIVITAS CARA

Distantzia: 1 km gutxi gorabehera

Hasiera: Santa Eufemia eta Agoitz kaleko bidegurutzean, Santakara

Historia eta natura ingurune berean daude. Cara hiri erromatarren hondakinetan ikus daitezkeen animalia txikiak, landareak eta aberastasun monumentala K.a. I. eta K.o. IV. mendeen artean.

Antzinako erromatar hiribildutik metro gutxira, Cara pasealekua dago. 200 metroko pasaleku honek inguruko paisaia ikusteko aukera ematen du, lasaitasunaz gozatzu edonorentzat atsegina.



SANTACARA EZAGUTU



"PORQUE FUERON SOMOS, PORQUE
SOMOS SERÁN"

"IZAN ZIRELAKO GARA, GARELAKO
IZANGO DIRA"

HERRIA HISTORIAN ZEHAR

Santakarako lurraldean bizi izan zen lehen zibilizaziotik gaur egunera arte. Herriaren historia markatu duten gertakarien erreperaso.



DORREA

Goialdetik begiratuta, Santakarako Erdi Aroko Gazteluaren hondakinak daude, eta Omenaldiaren Dorrea eta lubakiaren, harresiaren, ur-tangaren eta abarren hondarrak kontserbatzen dira. Hainbat ibilbidetatik heldu gaitezke. Hauek dira formarik ohikoenak: 139 eskailera ekialdeko aldetik, edo pinudiz inguratutako bide batetik.

Bidea edozein dela ere, leku zoragarri hau aurkitzen dugu, Erdi Aroko zaldunen, soldaduen eta borroken oroitzapena.



MONUMENTU ERLIJIOSOAK



Santakara herrian kristau tradizioaren adierazgarri diren hiru monumentu erlijioso aurki ditzakegu. Jasokundeko Andre Mariaren parroikia, Santa Eufemia koatronari eskainitako baseliza eta Uxueko Ama Birjinarako bidea markatzen digun gurutzadura bikaina, egoera ezin hobean kontserbatua.

ETXE BLASOIDUNAK

Herrigunean XVI. mendeko etxe ugari daude, bereziki elizaren kalean.

Ohikoak dira zirkuluerdiko atea edo apur bat zorrotzak obalo handiekin, eta, eraikin horietako batzuetan, arkutxo konopialetako leiho bikiak.

Asko dira fatxadetan etxe horien historia edo heraldikoeekin zerikusia duten armarriak dituztenak.



ABIZENEN JATORRIA



Nafarroako berezko hizkuntzak baloratu behar ditugu komunitatearen ondare immaterial gisa eta, oso garrantzitsua da euskarak bizirik jarraitzea urteak igaro diren arren eta hemendik igaro diren zibilizazio ezberdinak gorabehera.

Ikasleekin Santakarako biztanleen abizenen azterketa egin ondoren, euskal hizkuntzatik datozen abizen asko daudela ikusi dugu.

Abizenen jatorri historikoak ezaugarria oso interesgarria da, gure arbasoengandik datorkigu eta. Batzuetan, bizitzeko moduz, bizi izan ziren lekuez, zituzten jabetzez, egin zituzten lanez... hitz egiten digute.

Lan gogorra izan da, baina adituen borondatezko laguntzari esker jakin ahal izan dugu horietako batzuen jatorria eta esanahia.



- 1 Ibai pasalekua sarrera
- 2 Tamariz landarea
- 3 Santakarako baratzeak
- 4 Cara erromatar hiria
- 5 Dorrea
- 6 Eliza
- 7 Sta. Eufemia baseliza
- 8 Gurutzadura

INFORMAZIO GEHIAGO



<https://cpsantacara.web.educacion.navarra.es/>



<http://www.santacara.es/>